

# AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

## AURKIBIDEA:

1. EUSKO JAURLARITZAK ETA FORU ALDUNDIEK 2015EAN MURRIZTE POLITIKARI EUSTEA ERABAKI DUTE
2. ELKARRIZKETA SOZIALARAKO EUSKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA ONARTU EZINA DA
3. CEN, UGT ETA CCOOen ERRESKATE EKONOMIKOA
4. PRESTAZIO SOZIALAK AZTERGAI
5. ILEGITIMOA DEN ZORRA EZ ORDAINDU!
6. PROPOSAMENA: EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA, PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA EREDU BERRIA

**1.EUSKO JAURLARITZAK ETA FORU ALDUNDIEK 2015EAN MURRIZTE POLITIKARI EUSTEA ERABAKI DUTE**

Jaurlaritzak eta EAeko hiru Aldundiek osatutako Finantzen Euskal Kontseiluak aste honetan erabaki ditu 2014 eta 2015erako diru-bilketari buruzko aurreikuspenak

2014an bilduko den diruaren aurreikuspenen buruz ELAk esan behar du aurten gertatuko den igoera (650 milioi euro) batez ere BEZari dagokiola (540 milioi), Rajoyren gobernuak erabakitako igoeraren ondorioz. Aurten sozietateen zerga bidez 2013an baino 140 milioi euro gutxiago bilduko da, eta PFEZari esker iaz baino 220 milioi gehiago izango dira. Honek esan nahi du, ELAk iaz salatu zuen moduan, EAEn ezarri diren zerga-erreformek ez dutela, inondik ere, eskaini beharreko politika sozialak finantzatzeko adina diru-sarrera ematen.

**ZERGA HITZARTUEN BIDEZKO DIRU-BILKETA. EAE. 2013-2015, MILIOIKA EURO.**

	2013 (BENETAKOA)	2014 (AURREIKUS)	2015 (AURREIKUS)	2015/2013 (ALDEA, %)
GUZTIRA	11.752	12.402	13.080	11,3%
PFEZ	4.255	4.485	4.680	10%
SOZIETATE ZERGA	1.216	1.076	1.164	-4,2%
BEZ	4.278	4.819	5.113	19,5%

*Iturria: Finantzen Euskal Kontseilua.*

2015eko diru-bilketari buruzko aurreikuspenen ondorioz aurrekontu-murrizketak aplikatuko dira administrazioetan. Halaber, prebisio horiekin bestelako zerga-politika bat egitea erabat baztertzen da, zeinekin iruzurrari jazarri eta errenta altu eta kapitalen gaineko presio fiskala areagotuko litzatekeen. Zerga-politika hau aplikatuko balitz diru bilketa asko hobetuko litzateke, eta baliabide gehiago bideratu ahal izango litzateke osasungintza, hezkuntza, prestazio sozial, etxebizitza, zerbitzu sozial eta abarretara.

Datorren urtean iaz baino 680 milioi gehiago

(horietako 300 BEZari dagozkio) bilduko dela esateak esan nahi du Jaurlaritzak 2015ean aurten baino 454 milioi euro gehiago jasoko dituela. Halere, Urkulluk Rajoyrekin hitzartu zuen 2015ean defizit publikoa %1etik %0,7ra jaitziko zuela, hots, gasturako 200 milioi gutxiago izango dira. Bestalde, Jaurlaritzaren zor publikoaren ordaina gehitu egingo da, aurtengo 800 milioi eurotik 2015eko 1.000tik gora milioira. Horrenbestez, Jaurlaritzaren 2015eko gastua zor publikoa ez beste partidetan 54 milioi euro besterik ez da haziko; honen ondorio ziurra da murrizte sozialen politikarekin jarraituko dela. Hori erabaki dute Foru Aldundiek eta Jaurlaritzak Finantzen Euskal Kontseiluan.

Horregatik, ELAk Aldundiei eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen die errotik alda ditzatela zerga- eta aurrekontu-politika, langabezia, txirotasuna eta desberdintasun sozialak areagotzearen ondorioz sortu den egoerari aurre egiteko. Haatik, hartutako erabakiak kontrako noranzkoan doaz. Finantzen Kontseiluaren bilera amaituta agintariek eman duten irudia da indarrean diren politikarekin erabat ados daudela, honek ondorio ezin larriagoak dituen arren.

**2.- ELKARRIZKETA SOZIALARAKO EUSKO JAURLARITZAREN PROPOSAMENA ONARTU EZINA DA**

Eusko Jaurlaritzak Elkarrizketa Sozialaren Mahaia martxan jartzeko dokumentu bat aurkeztu du. ELAk dokumentu horren **balorazioa** plazaratu du. Balorazioaren ondoriak hauek dira:

- ELAk uste du Eusko Jaurlaritzak elkarrizketa soziala delakoa abiarazteko aurkeztu duen agiria onartu ezinekoa dela goitik behera. Mugimendu sindikalari egindako irainaren parekoa da. Nahi dutena da sindikalismoa eta

gatazka enpresetik ateratzea. Bere edukiak frogatzen duenez, benetako mamirik gabeko elkarrizketa soziala da helburua, eta bultzatzen duten lan harremanen ereduarekin Euskal Herrian pairatzen ari garen desberdintasun ekonomiko eta sozial hazkorra areagotu nahi dute.

- ELA ez dago prest onartu ezineko baldintza horietan oinarritutako elkarrizketa sozial batean parte hartzeko. Edukirik gabeko antzezpen horretan parte hartzen duen sindikatuak sistema jakin bati emango dio babes, kapitalaren eta enpresen interesak langileen interesen gainetik jartzen dituen ereduari. Hautu sindikal hau Nafarroan eta espainiar estatuan UG Tk eta CCOOek garatu dute, eta orain horregatik ari da hedabideetan agertzen hainbat eskandalu; hauen erroa beti izan da bake soziala helburu zuen sistema batean inplikatu eta kudeatzaile izatea, horren truke finantzatu egiten baitziren parte hartzen zuten erakundeak. ELAk beti baztertu izan du sistema horren parte izatea, eta hala eutsiko dio.
- Ezin da ulertu esparru sindikalean (baita politikoan ere) gertatzen ari dena erakunde bakoitzaren autonomia politiko eta finantzario mailari erreparatu gabe. ELAren irudiko funtsezkoa da erakundeak politiko eta ekonomikoki autonomo izatea.
- ELAk Jaurlaritzari eskatzen dio ez dezala Elkarrizketa Sozialeko Mahairik abiarazi. EAEko gehiengo sindikala aurka dago. Beraz, arazoa ez datza soilik ereduari. CCOOek eta UG Tk osatzen duten minoria sindikalarekin eratzearen parekoa litzateke 75 kide izan ordez 27 lituzkeen sasi-Legebiltzar bat sortzea. Halako parlamentu batek zilegitasun bera izango al luke? Legitimoak izango

ote lirateke bere legeak?

- ELAk ohartarazi behar du agian Jaurlaritzak zuzenean finantzatuko dituela Elkarrizketa Sozialeko Mahaian parte hartuko duten erakundeak, Patxi Lopezen gobernuak egin zuen moduan edo Nafarroan patronalak, UG Tk, CCOOek, UPNk eta PSNk erabaki duten bezalaxe. Kiebra ekonomiko eta finantzarioa jota dagoen sindikalismo baten erreskate-plana da sindikatu batzuk honelako elkarrizketa sozialari babes emateko arrazoi bakarra.
- ELAk gogoratu behar du duela zenbait hilabete Jaurlaritzak eta sindikatu honek erabaki zutela enplegurako prestakuntza edota lan osasunaren moduko gaiak buruz elkarri agiriak helaraztea. ELAk emandako hitza bete zuen, baina gobernuak ez. ELAren proposamenei oraindik ez diete erantzunik eman, Jaurlaritzak konpromiso hori bere gain hartuagatik ere. ELAk beti agertu du interesa eta konpromisoa politika publikoek jendearen beharrianak ase ditzaten.
- ELAk langile-klasearen indar-erlazioa hobetzeko helburua duen eredu sindikala jorratzen jarraituko du. Jaurlaritzak argi utzi du aurrerantzean ere aldebakarreko erabakiak hartuko dituela, kontsentsu sozialik gabe. Patronala harrotuta dago, bere emaitza-kontuak enpleguaren eta lan-baldintzen lepotik hobetuz. Jaurlaritzak eta patronalak bake soziala nahi dute, eta sindikalismoak ezikusiarrena egitea. Baina ELAk ez du halakorik egingo.
- Aurrerantzean ere erakutsiko dugu gertatzen ari denak baduela alternatibarik. Horretarako, negozioz kolektiboan, besteak beste, honakoa defendituko dugu: erosteko ahalmena, enplegua sortzeko lanaldi murrizketa,

prekarietate laboralaren adierazpide desberdinen aurkako borroka, eta erreforma laborala ez aplikatzea. ELAk ez dio etsiko bere eskariari: Hego Euskal Herriko erakundeak egiten ari diren aurrekontu- eta zerga-politikak errotik aldatzea. Gainera, lan harreman eta babes sozialeko euskal esparrua sortzea ere galdatuko du; honek ez dauka zerikusirik egungo ereduakudeatzearekin, eta ezin da bateratu Elkarrizketa Sozialeko Mahaiari emandako babesarekin.

### **3.- CEN, UGT ETA CCOOen ERRESKATE EKONOMIKOA**

Elkarrizketa sozialak Nafarroan izan duen bilakaerak erabateko diru xahutzea izatera eramanez, ezkutatu ere egiten ez dena, ez dagozkien botere eta diru publikoen kudeaketa egiten duten erregimenaren parte diren zenbait erakunderen mesedetan.

Azken urteetan elkarrizketa sozialaren baitan egindako akordioak aztertzen baditugu, diru publiko asko xahutu dela ikusiko dugu. Hala nola Nafarroa 2012 Plana (Navarra Arena bezalako obrekin), Moderna Plana (Administrazioa zati bat pribatizatzeo asmoarekin egina) edo Enplegu Planak (1.500 milioi euro inguru xahutu dira).

Berriki Nafarroako Gobernuak CEN, UGT eta CCOO erakundeek elkarrizketa soziala deritzonaren barruan beste akordio bat sinatu dute. Oraingoa *"jarduera ekonomikoa eta enplegua suspertzeko"* akordioa sinatu da, 2015-2017 urteetan 545,6 milioi eurotako gastua suposatuko duena. Baita erakunde hauek berak osatuko duten Kontseilu berri bat sortzea ere, PSNk bultzaturiko Lege proposamen baten bidez.

Akordio honek ez du zalantzan jartzen

Barcinaren murrizketa politika edo patronalaren eraso langile klaseari. Sortu nahi duten Kontseiluak diru publikoko finantziario partida bat izateaz arduratzen da gehien bat. Akordio hau besteak beste:

- Diru publiko xahutze ikaragarria da, 545,6 milioi euro enpresei eta enplegu heziketara bideratuko dira
- Aurrez pentsatuta gardentasun falta dauka akordioak, dirua zertan, nola eta zein irizpideren arabera gastatuko den jakitea ezinezko egiten duena. Beraz, ez da posible izango emaitzak aztertzea.
- CEN, UGT eta CCOO erakundeek erreskate ekonomikoa da. Kontseiluaren helburu nagusia erakunde hauek finantzatzea da.

Elkarrizketa Sozialak Nafarroan duen arazoa ez da sindikatu batzuen bazterketa. ELAk ez du langileoi egiten zaien iruzur honen parte izan nahi, eta ez du horretarako beharrik ere. ELAren eredu sindikalaren eta tokiko Gobernuaren diru-laguntzen menpe dauden UGTren eta CCOOen ereduaren artean dago aldea.

Hau guztiagatik, Lege honen bozketaren aurrean ELAk bere burua demokratikotzat jotzen duen edozein alderdi politikok ezezkoa bozkatu behar lukeela adierazten du.

### **4.- PRESTAZIO SOZIALAK AZTERGAI**

#### ***Urriak 17, Pobreziaren aurkako Nazioarteko Eguna***

Aplikatzeko ari diren politika antisozialak herritar gehienak pobretzea eragiten dute. Prekarietatea, pobrezia, babes gabezia, zalantza, eskubide murriztuak, aldi baterako enplegua, migrazio derrigortuak... osagai hauek taxutzen dute eraikitako sistema ekonomiko bidegabe bat, eta desberdintasuna gero eta handiagoko sistema soziala.

Hego Euskal Herriko langabezia tasak %16a gaintitzen du, hots, EBko batez besteko maila baino 6 puntu handiagoa da. Enplegurik gabe dagoen jendearen erdiak baino gehiagok ez du langabezia-prestaziorik jasotzen. Prestaziorik gabeko langabe portzentajea etengabe ari da hazten. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak prestazio sozialak moztu egin dituzte (Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) eta Gizarteratzeko Errentaren (Oinarrizko Errentaren), zenbatekoari nahiz bera jasotzeko epeari dagokionez, eta hainbat kolektibo inolako babesik gabe utzi dituzte. Pobrezia maila azken 25 urteotako handienetakoa da.

Lanbideren arabera DBE 2013ko bukaeran 62.817 bizikidetz-unitatek jasotzen bazuten, 2014ko abuztuan 65.367 ziren onuradunak. Nafarroan, Gizarteratzeko Errenta 10.800 familiek baino gehiagok jasotzen dute eta pobrezia-erregio arriskua 80.000 nafartarretan kokatzen da. EAEn, Gizarte Larrialdiko Laguntzak urtea bukatu baino hilabete batzuk arinago bukatzen dira.

Beraz babes soziala handitzeko beharra argia da. Hala ere, zenbaitek guztiaren inguruan zalantza sortzeko garaia omen da, babes sozialeko sistema publiko, unibertsal eta duina izateko aukera bera ere zalantzan jartzen baitute.

Gizarteak dituen benetako beharrei aurre egiteko beharrezkoak diren kopuru ekonomikoen faltak, gezurrezkoak, gaitzusteak eta xenofoboak diren diskurtso eta argudioekin ezkututzen dira. Lanbideko zuzendaritzak, adibidez, guztiz baliogabea eta desagokia den prozedimendua (10.000 gutunen bidalketa) erabili du ustez gaizki ordaindutako kopuru ekonomiko batzuk erreklamatzeko asmoarekin, baina horrela iruzurra eta irregulartasuna dagoelako iritziak indartu baino ez da egin. AP-ak bere diskutsoa indartu eta 30.000 sinaduren bilketarekin DBE berri bat

arautzeko herri-ekimena bultzatzea asmoa adierazi du, non irregulartasun egoeran, zigortuak, 10 urtez baino gutxiagoz erroldatuak, lanik edo kotizaziorik ez dituztenak eta erkidegoaren aldeko lanarekin bateragarria den errenta dute helburu.

Eta hau guztia, lasaitasuna eta krispazioa ez sortzeko eskaera egiten duen Lehendakari sorgor baten aurrean, bere esanetan “*gizartea diruz lagundua dago, prestazioen inguruan eztabaida sakona eta barea egiteko beharra dugu, administrazioak eskeintzen dituen diru-laguntzen eta sektore eta eremu guztietan ez prestazioetan bakarrik*”. Hau da, gako gehiago murriztean dago. Gastu kontua da, ezer ez sarreren inguruan.

Alternatibak badaude, eta Hego Euskal Herriko erakundeak aplikatzen ari diren aurrekontu- eta zerga-politiken goitik beherako aldatetaren baitan leudeke. Guneak, ELAK parte hartzen duen plataforma, aldarrikatzen duen bezala:

- Gutxieneko soldata zeharo hobetzea, ekiditeko lanean dagoen edonor pobrea izan dadin.
- Langabezia-prestazio duina, enplegurik aurkitzen ez den bitartean.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE edo RGI) eta Gizarteratzeko Errentaren (Oinarrizko Errentaren) zenbatekoa gehitzea, egungo LAGSEren (SMI) gainetik. Horrekin batera, kide bat baino gehiagoko bizikidetz-unitateei aplikatzen zaien eskalak gehitzea. Egun indarrean dagoen sistemaren ordez diru-sarrerak bermatzeko sistema berri bat ezartzea, eskubide soziala izango dena. Bizimodu duina izateko eskubidea bermatu beharra dago. BDE eta Gizarteratze Errenta mantenduko direla bermatzea, baliabide ekonomikorik ez dagoen bitartean. Gizarte-Larrialdietarako laguntzak jasotzeko eskubide subjektiboa aitortzea; laguntza horiek benetako beharrezkoak osatu behar dituzte.

- Prestazio sozialak jasotzeko aukera aitortzea murrizketen ondorioz baztertuta geratu diren kolektibo guztiei.
- Prestazio sozialak kudeatzerakoan aplikatzen ari diren irizpide murriztaileak alde batera uztea.
- Aurrekontuak gehitzea, ahalbidetzeko zerbitzu publiko unibertsal eta kalitatezkoak (osasungintza, hezkuntza, enplegua, arreta soziala) izango direla.
- Pertsona guztiei osasun eta osasun-arreta eskubidea, hezkuntza eskubidea eta etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea bermatzea. Halaber, bermatzea baliabide ekonomiko nahikorik ez duelako inor ez dela argindar, gas edo urik gabe geratuko.
- Erakundeen konpromisoa, babes sozialeko sistema oso bat ezartzea ahalbidetuko duten tresna propioak ezartzeko; sistema horri esker Euskal Herrian guztiek bizimodu duin, autonomo eta egokia garatzeko bitarteko eta baliabide nahikoak izango lituzkete.

## **5.- ILEGITIMOA DEN ZORRA EZ ORDAINDU!**

Urriaren 8tik 15era zorraren eta erakunde finantzario internazionalen (EFI) aurkako astea ospatu da, urriaren 15ean Thomas Sankara, Burkina Fasoko buruzagia, zorrak ordaintzearen aurka agertu eta EFLek inposaturiko politikiei ezetz esan eta agertzeagatik hil zuten orain 27 urte.

Zor sistema maltzurra da guztiz. Nazioarteko Diru Funtsa, Munduko Bankua edo Troikak agindu eta politikak eta agintariak men egiten dute. Zor publikoa ordaintzeari lehentasuna ematen diote, jatorriz izaera pribatua duen arren; eta horrela herritarrak zordun bihurtzen dituzte, eta zama hori bereziki astuna egiten zaie zigortuen dauden gizarte-taldee

(langabeei, pentsiodunei, emakumeei, etorkinei...), prestazio sozialen murrizketa jasan behar izan baitute. Egoera horren eraginez prezio garestiegiak ordaindu behar izan dira oinarritzko produktu eta zerbitzuengatik, zerbitzu publikoetan gabeziak eta murrizketak jasan behar izan dira, eta natur baliabideak neurritz gainezka ustiatu behar izan dira, ingurumenean eta gizartean nekez konponduko diren kalteak eraginda. Eta hori guztia onuradun bakar baten mesedetan: kapitala.

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak 2014an, 2008an baino 228,5 milioi euro gutxiago bideratu zituzten osasungintzara. Hezkuntzari dagokionez, 151,5 milioi eurotan gutxitu dute partida. Aldiz, zor publikoari ordaindutakoa 1.081,4 milioietan hazi da.

### **EUSKO JAURLARITZAREN ETA NAFARRO GOBERNUAREN AURREKONTUEN ZENBATEKOAK (MILIOI EURO) 2008-2014.**

	2008	2014	ALDAERA
OSASUNGINTZA	4.473,1	4.244,7	-228,4
HEZKUNTZA	3.479,4	3.328,0	-151,4
ZORRAREN ORDAINA	113,6	1.195,0	+1.081,4

Urriaren 13 ELAk Guggenheim museoaren aurrean mosaiko bat osatu zuen, horrela mundu mailako salaketarekin bateginez eta exijituz:

- Herri-auditoria publikoak ezarri ez legezkoak eta ez zilegiak diren zorrak identifikatu eta kitatzeko.
- Gobernuen burujabetza onartu, aldebakarreko neurriekin zorrak ez ordaintzeko erabakiak hartu ahal izateko, giza, lan, sozial eta ingurumen eskubideak errespetatuz.
- Zorraren Nazioarteko Auzitegia antolatzea, hartzekodunen eskubideen ginetik giza eskubideak errespetatuko direla bermatzeko.

- Pertsonen eta planetari lehentasuna emango dion egitura berri bat, orokorra eta herrialdeka, hartzekodun eta korporazioen gainera dagoena.
- Bidezkoa eta progresiboa den zerga sistema.
- "Putre" funtsen aurkako legeak. Funts hauek paradisu fiskaletan izan ohi dute egoitza, eta zorrak prezio oso merkeetan erosten dituzte (bai publikoak, Argentinaren kasuan bezala, edo pribatuak, Kutxabankena alegia, gero horien ordainketa osoa exijitzeko).

#### **6.- PROPOSAMENA: EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTA, PLANGINTZA ETA ANTOLAKETA EREDU BERRIA**

Urriaren 4an Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren zortzigarren batzarra egin zen Eibarren.

Orain arteko lanari jarraipena emanaz plangintza eta antolaketa eredu berria onartu ziren.

Asanbladan elkartutako eragileek sentsibilizazio, atxikimendu eta mobilizazio faseari ekitea erabaki zuten, Kartan jasotako eskubide eta edukiak ardatz hartuta.

Eskubide Sozialen Kartaren antolaketa eredu ere onartu zuen asanbladak, urteroko asanblada nazionalarekin, koordinadora nazionalarekin eta lekuan lekuko taldeekin.

Azken urtean izandako prozesu horizontal eta parte-hartzaileak Karta zerbait ezberdina dela adierazten du. Batzar honek bide horretan jarraitzeko bultzada eman dio Kartari.